

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

H2PIA, etorkizuneko hiria

EZ DAKIGU krisi garai honek eragina izango duen ala ez azalduko dugun berri honetan, baina Danimarkak jarraitzen du baieztatzen 2010ean munduko lehen hiri erabat ekologikoa eraikiko duela: H2PIA.

Hiriaren izenak, neurri batean behintzat, adierazten du hiriaren funtsa zein izango den, hidrogenoa alegia. Energia premia gehienak hidrogenoaren bidez asebeteko dira, eta haren manipulazioaren ondorioa ur garbia izango da. Ibilgailuentzat, gasolindegien ordez, hidrogenote-giak eraikiko dituzte.

Etxeak bi motatakoak izango dira: bakarrik bizitzekoak edo familia bakarrekoak, eta bizilagunekin bizitzekoak. Lehenak energia-iturri komunetatik hornituko dira, eta besteek berriz, haizetik eta eguzkitik energia baliatzeko tresna bereziak ez ezik, forma berezia izango dute, hala nola etxaurre kurboa, panelen bidez eguzki energia hobeto hartzeko.

Munduan kontzientzia ekologikoa handitzen ari den une honetan, etorkizuneko eraiki beharreko hirien ereduak izan nahi du H2PIAk. Ea asmoa errealitate izateko bidean jartzen den, ala petrolioaren gorabeheren menpe geratzen.



Glaziar erraldoiak Marten

MARS RECONNAISSANCE ORBITER zundaren radarrak ur-glaziar erraldoiak detektatu ditu Marteko gainazalaren azpian. Planeta gorrian ura dagoela jakina da, baina orain arte topatutakoa beti poloitua izan da. Oraingoan bestelako latitudeetan aurkitu dute, eta oso kantitate handitan gainera. Hellas izeneko eremuan, esaterako, 800 kilometroko zabalera duen glaziaria aurkitu dute, 28.000 kilometro kubo ur dituen.

Atzemandako glaziarretako batzuk hiru metro eskaseko sakoneran daude. Inoiz hara ailegatzeko bagara, oso informazio garrantzitsua izango dugu zain hango izotzetan.



Marteren gainazal azpitik metro gutxira izotz kopuru handiak antzeman dituzte.

Zenbat eta gizenago, plazer gutxiago jateak

Texaseko Unibertsitateko ikerlari talde batek esan duenez, pertsona gizenek argalek baino plazer gutxiago sentitzen dute jatean. Plazer bila aritzeak gehiago jatea eragiten die eta hori izan daiteke gainpisuaren arrazoietakoa bat. www.amazings.com/ciencia/noticias/211108b.html

Galapago uharteetan ozta-ozta saihestu dute desagerpena sei landare espezie autoktonon

Aspaldi hasi ziren Galapago irltako ekosistema zaintzen, adoretsegi batzuetan. Kanpotik iritsitako landareak desagerrarazten hasi ziren, bertakoei kalte egiten zitelakoan, baina hanka-sartzeak ere egin zituzten: zenbait espezie autoktono kanpotartzat hartu eta suntsipenera kondenatu zituzten. Orain hutsaz ohartu eta salbatu egin dira sei espezie behintzat. <http://ttiki.com/1468>

Dinosauro kumearen garezurak belarjaleen eboluzioaren arrastoa eman dezake

Orain 190 milioi urte, 200 gramo eskas pisatzen zuen dinosauroak haragia jateari utzi eta landareak jaten hasi zen, berriki jakin izan denez. Aurkikuntzak egungo belarjaleen eboluzioa hobeto ezagutzen lagundu dezake. www.amazings.com/ciencia/noticias/211108e.html

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza 
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16